

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

OGASUN SAILA

Ondare Kudeaketa

Gasteizko Udalaren jabetzakoak diren etxean tratu txarren biktima izan diren emakumeentzako egoitza-zentroak eta emakumeentzako beste egoitza-zerbitzu batzuk Arabako Foru Aldundiari jabari publikoko emakidan ematea luzatzea

2008ko abenduaren 5ean onartu zen EAEko Gizarte Zerbitzuei buruzko Legea, zeinak honako xede hau baitzuen: Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan gizarte-zerbitzuen prestazioak eta zerbitzuak jasotzeko eskubidea sustatu eta bermatzea, eta, horretarako, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema unibertsal bat arautu eta antolatzea.

2015eko urriaren 29an onartu zen 185/2015 Dekretua, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta gizarte-zerbitzuen zorroari buruzkoa, zerbitzu horiek lortzeko beharkizunak, irizpideak eta prozedurak arautzeko; horretarako, besteak beste, EAEko administrazio publikoek dituzten betebeharrak ezartzen dira zorro horretako prestazio eta zerbitzuez hornitzeari dagokionez.

Arabako Lurralde Historikoan, 2016ko uztailaren 22an onartu zen Gizarte Zerbitzuen Mapa, eta udalaren eskumeneko zein foru erakundearen eskumeneko laguntza ekonomiko eta zerbitzuen multzoa ezarri.

Esparru horretan, Gasteizko udalerrirako gizarte-zerbitzuak ordenatu eta haien eraginkortasuna bermatzeko mekanismoak ezartzearen, Arabako Foru Aldundiak eta Gasteizko Udalak bi erakundeen arteko lankidetzarako esparru-hitzarmena izenpetu zuten gizarte-zerbitzuen arloko eskumenak berrantolatzeke.

Berrantolatzekeak diren zerbitzuen artean daude gaur egun Gasteizko Udalaren jabetzako higiezinetan kudeatzen diren Foru Aldundiaren eskumeneko zerbitzuak, hala nola etxeko tratu txarren biktimentzako egoitza-zentroak.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2017ko apirilaren 7ko erabakiaren bidez, ebatzi zuen etxean tratu txarren biktima izan diren emakumeentzako egoitza-zentroen erabilera pribatiboaren emakida ematea Arabako Foru Aldundiari (zentroak jabari publikoko udal-ondasunak dira), oinarri hauekin:

- Higiezinaren erabilera pribatiboaren emakida ematearen truke ez da inolako ordainik emango, ez baitio onura ekonomikorik sortzen emakidadunari.
- Emakidak urtebeteko hasierako iraupena izango du, 2017ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, baina epe bereko luzapena izan dezake, aldeek esanbidez adierazita.
- Emakidadunak bere gain hartuko ditu horniduren gastuak, altzarien zuzkidura, garbiketa, prebentzio- eta konponketa-lanak, komunitateko ohiko eta aparteko gastuak, eta higiezina zamatzen duten zergak eta bestelako gastuak.
- Zentroak aurreikusitako helburuak egoki bete ditzan behar diren lanak egiteko baimena eman ahalko du Udalak. Obra horiek Udalaren onurarako geratuko dira emakida amaitzean, eta ez dute sortuko inolako ordainik ez eta kalte-ordainik ere foru-erakundearen alde.

– Udalak lokala emakidan uzteaz beste ardurarik ez du bere gain; beraz, ez du –ez zuzenean, ez subsidiarioki– egite edo ez-egitearen ondorioz lokalean gerta litekeen kalte material edo pertsonalen gaineko ardurarik hartuko bere gain. Emakidadunari dagokio erantzukizun zibileko aseguru bat kontratatzea, eta ondasunaren emakidak irauten duen bitartean indarrean izatea. Gasteizko Udalak aseguratu gehigarriaren izaera izango du, horregatik hirugarrenaren izaera galdu gabe.

- Emakida administrazio-agirian formalizatuko da.
- Honako hauek izango dira emakida iraungitzeko arrazoiak:
 - Emakidadunaren nortasun juridikoa iraungitzea.
 - Iraungitzea, epea gainditu delako.
 - Erreskatea.
 - Bi aldeek hala adostea.
 - Titularraren betebeharren ez betetze larria.

– Ondasunen atxikidura kentzea. Hala gertatuz gero, likidatu egingo da, Administrazio Publikoen Ondarearen azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 102. artikuluan xedatutakoaren ildotik.

2018ko urtarrilaren 17an, Udalaren Erregistro Nagusian sartu zen Arabako Foru Aldundiaren 2018ko urtarrilaren 9ko 5. zenbakiko Erabakiaren komunikazio bat; horretan eskatzen zen Gasteizko Udalak Arabako Foru Aldundiari genero-indarkeriaren biktima izan diren emakumeentzako berehalako harrera-zentroa izateko eman zion erabilera pribatiboko jabari publikoko emakida luza zedila.

Eskaera Gizarte Politiken Sailari helarazi zitzaion, eta, otsailaren 6an, aldeko txostena eman zen eskatutako luzapenaren bidezkoatasunari buruz.

Txostena ikusita, Tokiko Gobernu Batzarrak, 2018ko otsailaren 23ko erabakiaren bidez, ebatzi zuen eskatutako emakida urtebetez luzatzea, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera.

Berriro, lotura hori amaitu aurretik, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak berriro adierazi zuen etxebizitza horiek behar zituela harik eta beste batzuk eduki arte.

Adierazitako premia hori ikusita, 2018ko abenduaren 20an, Gizarte Politiken Sailak jakinarazi zuen komenigarria litzatekeela etxebizitzaren erabilera berreskuratzea, baina, kontuan hartuta zer helburu eman nahi zaien horiei, beste hiru hilabetez luzatzearen alde agertu zen: luzapena 2019ko urtarrilaren 1ean hasi, eta 2019ko martxoaren 31n bukatuko litzateke.

Egoera aztertuta, 2018ko abenduaren 28an, Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki zuen aldatzea gizarte-zerbitzuen arloko eskumenak berrantolatzeke bi erakundeen arteko lankidetzarako esparru-hitzarmena, hartara baliabide horiek lagatzeko epea beste hiru hilabetez luzatzea ahalbidetzeko (2018ko abenduaren 31n bukatzekoa zen hasieran); epe hori amaituta, Udalera itzuliko dira ondasunak.

Horien titularrak, Arabako Foru Aldundiak, gaur egungo kokalekuan zerbitzua ematen jarraitzeko asmoa duenez (harik eta beste kokaleku egoki bat aurkitu arte), bidezkoa da eskatutakoa onestea, hasierako luzapena onetsi zen baldintza berberetan eta hiru hilabeteko eperako: 2019ko urtarrilaren 1etik 2019ko martxoaren 31ra arte.

Aurrekoaren haritik, eta Tokiko Gobernu Batzarrak duenez emakidak adjudikatzeko esku-mena –Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bigarren xedapen gehigarriak (“Toki-erakundeetan kontratatzeke berariazko arauak”) xedatutakoaren arabera–, erabaki-proposamen hau egiten dio Ogasun Saileko zinegotzi ordezkariak Tokiko Gobernu Batzar horri:

Lehena: Etxean tratu txarren biktima izan diren emakumeentzako egoitza-zentroen (zeinak udalaren jabetza publikoko ondasunak baitira) erabilera pribatiborako Arabako Foru Aldundiari jabari publikoko emakida 3 hilabetez luzatuko da, 2019ko urtarrilaren 1etik.

Bigarrena: Ondasun horren gaineko jabari publikoko emakidaren luzapenak adjudikazioa eraendu zuten oinarri berberak izango ditu, eta erabaki hau erantsi beharko zaio bere garaian formalizatutako administrazio-dokumentuari.

Hirugarrena: Erabaki hau jakinaraziko zaie interesdunei, Gasteizko Udaleko Udal Eraikinetako Mantentze Zerbitzuari eta Zerga Kudeaketarako Zerbitzuari eta Arabako Foru Aldundiari.

Gasteizen, 2019ko otsailaren 14an

Ogasun Saileko zinegotzia
ITZIAR GONZALO DE ZUAZO